

XUL	Izena:	Taldea:	
	Gaia: Zatiagarritasuna - buruketak	Data:	

ZATIGARRITASUNA – BURUKETAK

- 1) Zenbat eratara multzokatu daitezke 36 gozoki, multzo bakoitzean gozoki kopuru bera egon eta bat ere soberan geratu ez dadin? 4 gozokiko multzoak egin ditzakegu gozokiak soberan gelditu gabe?

ERANTZUNAK:

- a) _____ modu desberdinetan multzokatu daitezke.
- b) 4 gozokiko multzoak egiten baditugu _____ multzo egongo dira eta soberan _____ gozoki geldituko dira.
- 2) Merendola bat egiteko ogitartekoak erosi ditugu. 40 urdaiazpikodunak eta 56 txorizodunak. Ogitartekoak azpiletan atera nahi ditugu. Kontutan izan azpil bakoitzean ez ditugula ogitarteko mota desberdinak nahastuko. Azpil bakoitzean ogitarteko kopuru bera egon behar du eta ahalik eta ogitarteko gehien jartzen saiatuko gara.
- a) Zenbat ogitarteko jarriko ditugu azpil bakoitzean ?
- b) Zenbat azpil aterako ditugu urdaiazpikodun ogitartekoekin ?
- c) Zenbat azpil aterako ditugu txorizodun ogitartekoekin ?

ERANTZUNAK:

- a) _____ ogitarteko egongo dira azpil bakoitzean.
- b) _____ azpil aterako ditugu urdaiazpikodun ogitartekoekin.
- c) _____ azpil aterako ditugu txorizodun ogitartekoekin.

XUL	Izena:	Taldea:	
	Gaia: Zatigarritasuna - buruketak	Data:	

3) Janirek 20 egunetan behin egiten die bisita gurasoei eta Josuk 12 egunetan behin. Gaur biek egin dute topo.

- a) Zenbat egun igaroko dira berriro biek topo egiteko ?
- b) Zenbat bisita barru egingo du topo berriro Janirek Josurekin ?
- c) Zenbat bisita barru egingo du topo berriro Josuk Janirerekin?

ERANTZUNAK:

- a) _____ egun igaroko dira biak berriro todo egin arte.
- b) _____ bisita barru egingo du topo Janirek Josurekin.
- c) _____ bisita barru egingo du topo Josuk Janirerekin.